

KULTURA ARLOKO FINANTZAKETAREN ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTADISTIKA

2016

0. IDENTIFIKAZIOA

GALDE-SORTA ZENBAKIA:

ENTITATEA:

ERAGIKETA EGITEN DEN SAILA:

GALDE-SORTA BETETZEKO ARDURADUNAREN DATUAK:

- a) Izen-abizenak:
- b) Kargua:
- c) Harremanetarako telefonoa:
- d) Harremanetarako posta elektronikoa:

0. IDENTIFIKAZIOAREN ALDAKETAK (soilik aldaketarik dagoen kasuetan betetzeko)

0.1. ENTITATEA:

0.2. ERAGIKETA EGITEN DEN SAILAREN IDENTIFIKAZIOA (kultura sailaren izen zehatza: zerbitzua, atala, zuzendaritza...):

0.3. GALDE-SORTA BETETZEKO ARDURA DUEN PERTSONAREN DATUAK:

- a) Izen-abizenak:
- b) Kargua:
- c) Harremanetarako telefonoa:
- d) Harremanetarako posta elektronikoa:

Azterketaren inguruko oharra:

Eragiketa hau Kulturaren Euskal Behatokiak jarri du martxan eta Euskal Estadistika Planean sartua dago. Helburua 2016 ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan kulturaren izandako finantzaketa eta gastu publikoaren inguruko informazioa biltzea da.

Informazio guztia estatistikako sekretuak babesten du eta beraz, datuak ezin izango dira banaka eman informatzaileak horretarako baimena idatziz ematen ez badu behintzat (Apirilaren 23ko 4/1986 Legea, Euskadiko Autonomia Elkartearen Estadistikari buruzko Legea).

GALDETEGIAREN INGURUKO ARGIBIDE OROKORRAK:

Galde-sortaren aurkezpena: galde-sorta hau, EAEko kultura arloko finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika lantzeko erabiliko den oinarritzko tresna da.

Erreferentzia aldia: 2016. urteko ekitaldiari dagozkion datuak bilduko dira.

Galde-sortaren egitura: lau atal edo gai-ardatz handitan egituratuta dago:

I ATALA. Entitatearen erakunde autonomo eta sozietate publiko edo fundazioen identifikazioa eta entitatearen menpeko ekipamendu kulturalen identifikazioa:

Erakundearen kultura arloko menpeko erakunde autonomoak eta sozietate publiko edo fundazioak eta ekipamendu kulturalak identifikatzea eskatzen da.

II ATALA. Kultura aurrekontua:

2016. urtean exekutututako kultura aurrekontuaren inguruko informazioa da eskatzen dena (hau da, onartutako obligazioei dagozkien datuak); kapitulu ekonomikoei eta kultura azpisektoreei jarraiki. 2016an entitateak exekutututako aurrekontu likidatu propioa ere eskatzen da.

III ATALA. Kultura arloko diru-sarrerak:

2016. urteko onartutako diru-sarrera kulturalen inguruko informazioa jasoko da atal honetan. Diru-sarreraren kapitulu ekonomikoen araberako sailkapena eta transferentzia bidez jasotako diru-sarreraren zehaztapena eskatzen dira.

IV ATALA. Kultura arloko giza baliabideak:

Kultura arloan enplegatutako giza baliabideen inguruko informazioa eskatzen da. Bai entitatearen beraren giza baliabideen ingurukoa, baita bere egituraren funtzionamendurako entitateak azpikontratatuta duenaren ingurukoa ere; pertsonal laguntzaile eta zeharkako pertsonalaz ere galdetzen da.

Zalantzak edo informazioa: edozein zalantza argitzeko edo informazioa eskatzeko deitu Siadecoko 943 310034 telefonora edo idatzi siadeco@siadeco.eus helbide elektronikora.

I. ATALA

ENTITATEAREN ERAKUNDE AUTONOMO ETA SOZIETATE PUBLIKO EDO FUNDAZIOEN IDENTIFIKAZIOA ETA EKIPAMENDU KULTURALEN IDENTIFIKAZIOA

Kultura arloan diharduten menpeko erakunde autonomo eta sozietate publiko edo fundazio guztiak identifikatu behar dira jarraian.

1.1. ENTITATEAK BA AL DU BERE JARDUERA KULTURA ARLOAN GARATZEN DUEN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMORIK?

Ez

Bai → Zenbat? →

Ondorengo koadroan idatzi erakunde autonomoen izena:

	Entitatearen menpeko erakunde autonomoak
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	

1.2. ENTITATEAK BA AL DU PARTE-HARTZERIK % 100EAN KAPITAL PUBLIKOA DUEN KULTURA ARLOKO SOZIETATE PUBLIKO EDO FUNDAZIOREN BATEAN?

Ez

Bai → Zenbatetan? →

Ondorengo koadroan idatzi sozietate publiko edo fundazioen izena, eta zehaztu erakundeak 2016. urtean izandako parte-hartze portzentajea:

	Sozietate publiko edo fundazioaren izena	Parte-hartze %
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

1.3. ENTITATEAK ONDORENGOETATIK ZEIN EKIPAMENDU KULTURAL DITU?

	Ez	Bai	Zenbat?
a. Kultur etxea, zentro zibikoa...			
b. Liburutegia			
c. Antzokia			
d. Museoa			
e. Artxiboa			
f. Musika eskola			
g. Besterik - Zehaztu:			

1.4. ERAKUNDE AUTONOMO, SOZIETATE PUBLIKO EDO FUNDAZIO ETA EKIPAMENDU KULTURALEN INGURUKO OHARRAK:

II. ATALA

KULTURA AURREKONTUA

2.1. KULTURA ARLOAN 2016. URTEAN EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA, KAPITULU EKONOMIKOEI ETA KULTURA AZPISEKTOREEI JARRAIKI.

Kapitulu ekonomikoei eta kultura azpisektoreei jarraiki, gastu partiden inguruan informazioa eman ahal izateko oharrak:

Kapitulu ekonomiko eta kultura azpisektore bakoitzerako 2016ko kultura aurrekontu likidatuaren (onartutako obligazioak) inguruko informazioa eskatzen da atal honetan.

Erabiliko den kapitulu ekonomikoen arabera sailkapena ondorengoa da:

- I. Kapituluak: Pertsonal gastuak
- II. Kapituluak: Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak
- III. Kapituluak: Finantza gastuak
- IV. Kapituluak: Transferentzia arruntak
- VI. Kapituluak: Inbertsio errealak
- VII Kapituluak: Kapital transferentziak
- VIII. Kapituluak: Finantza aktiboak
- IX. Kapituluak: Finantza pasiboak

Kapitulu ekonomiko bakoitzari galde-sortaren azpiatal bat dagokio, eta azpiatal bakoitzean, kapitulu horri dagokion 2014. urtean exekutututako kultura gastua zehaztu behar da (**gastuaren deskribapen** labur bat –kontzeptua- eta **zenbatekoa** adierazteko eskatzen da). Kapitulu ekonomiko bakoitzean gainera, gastua kultura **azpisektoreen** arabera sailkatzea ere eskatzen da.

I. eta II. Kapituluetan alde zuzenetik zenbait kontzeptu definitu dira, eta kapitulu horietako kultura gastua kontzeptu horietan sailkatu beharko da (kapitulu bakoitzaren atalean azalduko dira aurrez zehaztu diren kontzeptuak).

Bestalde, kultura gastua kudeatzeaz arduratzen den **arlo edo saila** ere identifikatu behar da: hau da, kultura gastua kultura arloari dagokion edo beste arloren bati dagokion, alegia:

A.- *Kultura arloari dagokion kultura gastua:* erakundearen kultura arlo edo sailetik sustatu eta kudeatzen diren kultura aurrekontu partidak sartuko dira hemen.

B.- *Beste arloetako kultura gastua:* kulturari egotzitako aurrekontu partidak izan arren, kultura ez den beste arlo edo sailek kudeatzen dituzten kultura aurrekontu partidak sartuko dira hemen (Euskara, Gazteria, Herritarren parte-hartzea... bezalako arloetatik kudeatutakoak, alegia).

Kultura azpisektoreen arabeko sailkapena:

- A1.- **ONDAREA ETA ARKEOLOGIA:** ondare arkitektoniko eta arkeologikoaren kontserbazioa, berritzea, birgaitzea, aztertzea, babesa eta hedatzea. Ez du barne hartzen ondare dokumental edo bibliografikoa; ez eta museoen baitako ondarea ere.
- A2.- **LIBURUTEGIAK:** mantentzea, liburutegietarako fondoak erostea eta liburutegietan sustatutako jarduerak. Azpisektore honen barnean sartzen dira ere, liburutegi baten esparru fisiko edo juridikoan ez garatu arren, ondare bibliografikoaren katalogazio faseak, babesa eta zaharberritzea.
- A3.- **ARTXIBOAK:** Arxibo eta ondare dokumentala sortzea, mantentzea, horren inguruan jarduerak garatzea, katalogazio lanak, fondoak erostea eta hedatzea.
- A4.- **MUSEOAK:** Antolatutako arte plastikoen erakusketak. Museoak sortu, mantendu, fondoak erosi eta hedatzea.
- A5.- **ANTZERKIA ETA DANTZA:** antzerki eta dantza ikuskizunak; arte eszenikoen esparru profesionalean sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzeko laguntzak. Atal honek barne hartzen du ere Zirkoa eta barietate jarduerak, ez ordea opera.
- A6.- **MUSIKA:** zuzeneko musika emanaldia, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sormena nahiz ekoizpena eta hedapena sustatzeko laguntzak). Musika eskolen kasuan, irakaskuntza ez-arautua hartuko da soilik kontuan.
- A7.- **IKUSIZKO ARTEAK:** pintura, eskultura eta bestelako ikusizko arteen erakusketak; sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzeko laguntzak.
- A8.- **ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK:** egiledun lan zinematografiko eta ikus-entzunezkoa; sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzeko laguntzak.
- A9.- **LITERATURA ETA EDIZIOA:** argitalpen eta literatura sustapena; sormena, ekoizpena eta hedapena sustatzeko laguntzak.
- A10.- **KULTURA-EKINTZA:** espezializatuak ez diren jaialdiak hartzen ditu barne, ekipamendu komunitario eta soziokulturaletatik sustatutako programak, ekipamendu eta zerbitzu kultural balioanitzak (zentro zibikoak, kultur etxeak...), amateurismoa eta kultura parte-hartzea.
- A11.- **BERTSOLARITZA:** egitura eta zerbitzu egonkorak mantendu eta laguntzera zuzendutako gastua hartzen du barne (bertso eskolei, elkartei, etab.ei emandako laguntzak).
- A12.- **JAIK ETA HERRI KULTURA:** udalerriko herriko jaiak ospatzeko antolatutako ekimen eta jarduerak hartzen ditu barne, hala nola herri kulturarekin eta kultura tradizionalarekin loturiko bestelako ekimen eta jarduerak ere. (Jaien barnean kontuan hartutako gastu guztia, kultura arloko gastua kontsideratuko da)
- B.- **ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK:** atal honek, kultura sailaren funtzionamenduaren gastu orokorrak hartzen ditu barne, kultura azpisektore jakin bati esleitu ezin dakizkiokeen gastuak (kultura teknikari baten pertsonal gastuak, adibidez). Zerbitzu batek kultura ez den beste esparruak ere kudeatzen dituen kasuetan (adibidez, kirola, gazteria, euskara, etab.), kulturari dagokion gastu zehatza inputatzeko, estimazioa egingo da.
- C.- **KOMUNIKABIDEAK:** (kultura esparruari erantsitako azpisektore gisa kontsideratzen da) komunikabide publiko, pribatu eta sozialei emandako laguntzak eta finantzaketa hartzen du barne atal honek.



I. Kapituluak. PERTSONAL GASTUAK

Erakundearen pertsonal propioaren gastuaren inguruko informazioa jasoko da atal honetan. Pertsonal gastuetan sartuko dira oinarritzko ordainsariak, ordainsari osagarriak, gizarte segurantza, Elkarkidetzako kuotak eta funtzionarioen, behin-behineko pertsonalaren eta lan-kontratudun pertsonalaren formazio gastuak. Azpiatal honetan aldeztu aurretik bi gastu mota definitu dira eta I. kapitulari dagokion gastua kontzeptu horietako zeini dagokion ere zehaztu behar da.

Hauek dira zehaztu diren gastu motak:

I.1. Kultura jarduerarekin zuzenean loturiko pertsonal gastua: kultura arloko pertsonalaren gastuak sartuko dira hemen: zuzendaria, teknikaria eta kudeaketa eta administrazioari pertsonalaren gastuak.

I.2. Pertsonal laguntzailea eta zeharkakoaren gastuak: pertsonal laguntzailea eta zeharkakoaren gastuak sartuko dira hemen: garbiketarako pertsonala, mantentze-lanetarako teknikariak (muntatzaileak, argiketariak, garrailariak, etab.), segurtasuna...

** Azpisektore jakinei dagozkien azalpenak:*

A10 KULTURA EKINTZA: Ekipamendu eta zerbitzu kultural balioanitzeki dagozkien pertsonal gastuak sartuko dira hemen (kultur etxeak, zentro zibikoak...): bai ekipamendu horietako zerbitzuei zuzenean loturiko pertsonalari dagozkion gastuak eta baita bertako pertsonal laguntzaileari dagozkionak ere (garbiketa, mantentze-lanak, segurtasuna...). Ez dira azpisektore honetan sartuko kultura arloaren koordinazio, kudeaketa eta zuzendaritza orokorrari dagozkion gastuak (kultur teknikariak, administrazioari laguntzaileak edo zuzendaritzako kideak). Eta ez da sartuko ere jai eta herri kulturarekin zerikusia duten jardueretako pertsonala ere.

B ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK: Azpisektore jakin batean sailka ezin daitezkeen kultura arloaren funtzionamendu orokorrerako pertsonal gastuak sartuko dira hemen (kultur teknikariak, administrazioari pertsonala, administrazioari laguntzaileak, zuzendaritzako kideak...).

I. kapituluak. Pertsonal gastuak

Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Gastu mota	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Zenbatekoa
GUZTIRA PERTSONAL GASTUAK (I. kapituluak)				

II. Kapitulu. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Kultura azpisektore bakoitzerako (A1, ..., C) kalkulaturako ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuei dagozkien 2016ko gastuak zehaztuko dira azpial honetan.

Aldez aurretik zenbait gastu mota zehaztu dira:

II.1. Kultura zerbitzu estrukturaletarako giza baliabideen azpikontratazioa: erakundearen kultura zerbitzu egonkorra garatzeko administrazioak edo erakunde autonomoak kontratatutako enpresa zerbitzuak (kultur etxearen kudeaketa, liburutegirako pertsonala, kultura arloaren zuzendaritza eta gestioa...).

II.2. Ekipamendu kultural eta kultura jardueretarako pertsonal laguntzaile eta zeharkako pertsonalaren azpikontratazioa: administrazioaren edo organismo autonomoaren kultura zerbitzuei laguntzeko erakunde kanpoko enpresek azpikontratazio egindako lanak sartzen dira hemen (adibidez, garbiketa lanak, ekipamendu kultural, kultur etxe, museo, zentro zibiko...en mantentze-lanak eta segurtasuna...).

II.3. Noizbehinkako kultura zerbitzu eta jardueren azpikontratazioa: noizbehinkakoak diren eta kultura zerbitzuen eguneroko funtzionamendutik kanpokoak diren zerbitzu eta jardueren azpikontratazioari dagozkion gastuak sartuko dira hemen: II. kapitulutik finantzaturako programazio kulturalerako gastuak hain zuzen ere (kultura sormena, ekoizpena, promozioa eta zabalkundea).

II.4. Kultura zerbitzuen hornidura eta mantentze gastuak: kultura zerbitzuen ohiko funtzionamenduari loturiko gastu materialak sartuko dira hemen (pertsonal gastuari ez dagozkionak). Hornidurak (energia elektrikoa, gasa, ura...), bulegoko materiala, garraioak, konponketa, mantentze eta kontserbazio gastuak (eraikinak, makineria, instalakuntzak, altzariak, informatika ekipoak...), alokairuak eta kanonak, aseguruaren primak, komunikazioak eta bestelako gastu materialak.

II.5. Kultura jarduerari loturiko bestelako zerbitzu eta gastu arruntak: publizitatea eta propaganda, ikerketa eta lan teknikoak, kalte-ordainak, osasun laguntzarako gastuak eta kultura jardueraren bestelako gastuak.

** Azpisektore jakinei dagozkien azalpenak:*

A10 KULTURA EKINTZAK: Erabilera anitzeko ekipamendu kulturei dagozkien ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (kultur etxe, zentro zibiko, etab.en hornidura gastuak, mantentze gastuak...), ekipamendu horietarako pertsonalaren azpikontratazioa, pertsonal laguntzailearen azpikontratazioa (garbiketa, mantentze-lanak, segurtasuna...) eta zentro horietatik antolatutako programazio kulturalerako gastu arruntak.

B ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK: Kultura arloaren funtzionamendu orokorrari dagozkion eta azpisektore jakin batean sailka ezin daitezkeen gastuak sartuko dira hemen (kultura arloaren kudeaketarako pertsonalaren azpikontratazioa, hornidura, mantentze eta konponketa gastuak,...).

III. Kapituluak. FINANTZA GASTUAK

Kultura azpisektore bakoitzerako (A1, ..., C) kalkulaturako finantza gastuei dagozkien 2016ko gastuak zehaztuko dira azpiatal honetan.

III. kapituluak. Finantza gastuak			
Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Zenbatekoa
GUZTIRA FINANTZA GASTUAK (III. kapituluak)			



VI. Kapituluak. INBERTSIO ERREALAK

Lurzoru, herri-lan, eraikin, makineria, instalakuntza, garraio, altzari, informazio prozesuetarako ekipa, bestelako ibilgetu materiala (funts editorialak, ikerketetarako materiala...) eta ibilgetu inmaterialean (ikerketak, txostenak, proiektu teknikoak) egindako inbertsioak zehaztuko dira hemen (VI. Kapituluak), azpisektoreei jarraiki (A1, ..., C).

VI. kapituluak. Inbertsio errealak			
Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Zenbatekoa
GUZTIRA INBERTSIO ERREALAK (VI. kapituluak)			

VII. Kapitulumua. KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Atal honetan 2016ko kapital-transferentziei dagozkien aurrekontu-partiden gastua (VII. Kapitulumua) ipini beharko da kultura azpisektoreka (A1, ..., C) eta arlo ezberdinetarako. Partidaren kontzeptuaz gain, transferentzia horiek jasoko dituen erakundearen izena zehaztea ere eskatzen da.

VII. kapitulumua. Kapital transferentziak

Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Erakunde hartzailea	Zenbatekoa
GUZTIRA KAPITAL TRANSFERENTZIAK (VII. kapitulumua)				

VIII. Kapitula. FINANTZA AKTIBOAK

Azpiatal honetan finantza aktiboen inguruko informazioa ematea eskatzen da (VIII. Kapitula), azpisektorearen arabera (A1, ..., C).

VIII. kapitula. Finantza aktiboak			
Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Zenbatekoa
GUZTIRA FINANTZA AKTIBOAK (VIII. kapitula)			

IX. Kapitula. FINANTZA PASIBOAK

Azpiatal honetan finantza pasiboen inguruko informazioa jaso behar da (IX. kapitula), azpisektorearen arabera (A1, ..., C).

IX. kapitula. Finantza pasiboak			
Kultura gastua egin duen arloa	Azpisektorea	Kontzeptua (partidaren zehaztapena)	Zenbatekoa
GUZTIRA FINANTZA PASIBOAK (IX. kapitula)			

2.2. KULTURA ARLOKO AURREKONTU LIKIDATUAREN GUZTIRAKOA, KAPITULU EKONOMIKOEI JARRAIKI ETA ERAKUNDEAREN AURREKONTU OSOA.

Erakundearen 2016ko aurrekontu likidatua kapitulu ekonomikoei jarraiki

2.1. atalean ipinitako informazio berreskuratuz, ondorengo koadroan ipini kultura aurrekontu likidatua kapitulu ekonomikoei jarraiki (kapitulu bakoitzerako kultura arlotik eta beste arloetatik kudeatzen den kultura aurrekontuaren batura da eskatzen dena) (erreferentzi gisa erakundearen 2014ko datuak ipini dira).

Kapitulu ekonomikoa	2016ko aurrekontu likidatua	2014ko aurrekontu likidatua
I. Kapitulu: Pertsonal gastuak		
II. Kapitulu: Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak		
III Kapitulu: Finantza gastuak		
IV. Kapitulu: Transferentzia arruntak		
VI Kapitulu: Inbertsio errealak		
VII. Kapitulu: Kapital transferentziak		
VIII. Kapitulu: Finantza aktiboak		
IX. Kapitulu: Finantza pasiboak		
GUZTIRA		

Erakundearen 2016ko aurrekontu likidatu osoa

Ipini erakundearen 2016ko aurrekontu likidatu propioaren zenbatekoa, kultura aurrekontu likidatua eta aurrekontu likidatu propioarekiko kultura aurrekontuak duen pisua (ehunekotan - %-) (erreferentzi gisa erakundearen 2014ko datuak ipini dira).

	2016ko aurrekontu likidatua	2014ko aurrekontu likidatua
Aurrekontu likidatu propioa		
Kultura aurrekontu likidatua		
Kultura aurrekontuaren %		

Kultura aurrekontuaren inguruko oharrak

III. ATALA

KULTURA ARLOKO DIRU-SARRERAK

Atal honetan, entitatearen 2016ko onartutako diru-sarreraren inguruko informazioa eskatzen da kapitulu ekonomikoei jarraiki (erreferentzi gisa erakundearen 2014ko datuak ipini dira). Bestalde, 2016. urtean beste erakundeetatik transferentzia arrunt edo kapital-transferentzia gisa (IV. eta VII. kapituluak) jasotako sarrerei buruzko xehetasunak ematea ere eskatzen da.

3.1. DIRU-SARRERAK KAPITULU EKONOMIKOEI JARRAIKI.

Kapitulu ekonomikoa	2016ko diru-sarrerak	2014ko diru-sarrerak
I. Kapituluak: Zuzeneko zergak		
II. Kapituluak: Zeharkako zergak		
III. Kapituluak: Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerak		
IV. Kapituluak: transferentzia arruntak		
V. Kapituluak: Ondasun gaineko diru-sarrerak		
VI. Kapituluak: Inbertsio errealeen inorenganatzea		
VII. Kapituluak: Kapital transferentziak		
VIII eta IX. Kapituluak: Finantza aktibo eta pasiboak		
GUZTIRA		

3.2. TRANSFERENTZIA BIDEZKO DIRU-SARRERAK (DIRU-SARREREN IV. ETA VII. KAPITULUAK)

Beste erakunde publiko eta antzekoetatik 2016an jasotako transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei dagozkien partidak eta xehetasunak jaso behar dira ondoko koadroetan:

Transferentzia arruntak (IV. kapitulua)

Azpisektorea	Transferentzia egiten duen erakundea	Egitasmo edo programa	Diru-sarreraren kontzeptua	Zenbatekoa
GUZTIRA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (IV. kapitulua)				

Kapital transferentziak (VII. kapitulua)

Azpisektorea	Transferentzia egiten duen erakundea	Egitasmo edo programa	Diru-sarreraren kontzeptua	Zenbatekoa
GUZTIRA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (IV. kapitulua)				

3.3. DIRU-SARREREN INGURUKO OHARRAK.

IV. ATALA

KULTURA ARLOKO GIZA BALIABIDEAK

Kulturako pertsonalaren inguruko informazioa jasoko da atal honetan. **Bi lan harreman mota** bereiztuko dira:

- Bertako enplegua: I. kapituluaren bidez finantzatutako enplegua. Lanpostu horietatik emakumezkoak zenbat diren eta gizonezkoak zenbat diren zehaztea ere eskatzen da.
- Azpiktratatutako enplegua: erakundearen funtzionamendurako gainontzeko kapituluetatik finantzatutako azpiktratatutako pertsonala (II. eta IV. kapituluetatik).

Lanpostuaren **bi perfil bereiztuko dira**:

- Kudeaketa eta jarduera kulturalerako pertsonala: kultura arloko pertsonala: zuzendariak, teknikariak, eta kudeaketa eta administratzaileak pertsonala (zuzendarien barruan sartuko dira I. kapitulutik finantzatutako kargu politiko liberatuak - zinegotziak...- ere).
- Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala: kultura arlotik kudeatutako aurrekontu partidetatik finantzatutako pertsonal laguntzailea eta zeharkakoa: garbiketariak, mantentze lanetarako teknikariak (muntatzaileak, argiketariak, garraiolariak, etab.), segurtasuna...

Batez besteko **langile kopurua kalkulatzeko**, lan-mota bakoitzeko enplegatu guztiek lan egindako hilabeteak batuko dira lehendabizi, eta ondoren zati 12 kalkulatu (urte batek dituen hilabeteak, alegia). Honela, adibidez, ondorengo hipotesian, arlo jakin batean dauden batez besteko teknikarien kopurua kalkulatzeko, honakoa egingo litzateke:

$$2 \text{ teknikari funtzionario (lan egindako hilabeteak, 12)} = 2 \times 12 = 24$$

$$\text{Teknikari ebentual bat 3 hilabetez} = 1 \times 3 = 3$$

$$\text{Guztira arlo horretan teknikariek lan egindako hilabeteak} = 27$$

$$\text{Batez beste teknikari kopurua arlo horretan} = 27/12 = 2,25$$

Ondorengo taulan adierazi 2016ko bataz besteko langile kopurua aurrez zehaztutako perfil bakoitzerako (erreferentzi gisa erakundearen 2014ko datuak ipini dira):

		Kudeaketa eta jarduera kulturala					Pertsonal laguntzailea eta zeharkako pertsonala					GUZTIRA 2016	GUZTIRA 2014	
		Zuzendariak	Teknikariak	Kudeaketa eta administrazioa	GUZTIRA 2016	GUZTIRA 2014	Garbiketa	Mantentze-lanetarako teknikariak	Segurtasuna	Bestenik	GUZTIRA 2016			GUZTIRA 2014
Bertako enplegua (I. kap.)	Emakumezkoak													
	Gizonezkoak													
	Guztira													
Azpiktratatua (beste kap.)														
GUZTIRA														

Giza baliabideen inguruko oharrak

GALDETEGIAREN INGURUKO OHAR ETA IRADOKIZUNAK.

MILA ESKER ZURE PARTE HARTZEAGATIK.

